

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

Arraia-Maeztuko, Bernedoko, Kanpezuko, Lagrango, Urizaharreko eta Haraneko udalerrietan hiriko hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren zerga ordenantzaren aldaketa behin-betiko onartzea

Arabako Mendialdeko Kuadrillak, 2021eko irailaren 6an egindako bilkuran, onarpena eman zion Arraia-Maeztuko, Bernedoko, Kanpezuko, Lagrango, Urizaharreko eta Haraneko udalerrietan hiriko hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren eskaintza arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari.

Behin-behineko onarpena ALHAOn argitaratu zen, 2021eko irailaren 20ko ALHAOn (107 zk.). Jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak 49.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

7/85 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, aipatutako ordenantza horren aldaketa oso-osorik argitaratzen da, aurrerantzean indarra izan dezan:

Eranskina: Tasak

1 epigrafea. Etxebizitzak, txokoak (etxebizitzetatik at), gastronomia elkarteak, nekazaritza etxeak, landetxeak eta antzeakoak: 88,80 euro.

2 epigrafea. Bulegoak, lantegiak, jakiak saltzen ez dituzten dendak, tabernak, gizarte etxeak eta antzeakoak: 177,60 euro

3 epigrafea. 8 plaza baino gutxiagorentzako aterpetxeak, apopilo etxeak, ostatuak eta hotelak: 177,60 euro.

4 epigrafea. 8 pertsona baino gehiagorentzako aterpetxeak, apopilo etxeak, ostatuak eta hotelak: 266,40 euro.

5. epigrafea: Elikadurako merkataritza-lokalak, elikagai-industriak eta jatetxeak: 266,40 euro.

6 epigrafea: Hirugarren adinekoen egoitzak: 266,40 euro.

Aipatutako tasak 2022. urtetik aurrera aplikatuko dira, eta tasa horiek urtean urteko errolda onartu ondoren kobratuko dira.

Santikurutze Kanpezu, 2021eko azaroaren 4a

Presidente

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA